

1 fasea

378 ekarpen

2 fasea

20 proposamen

Oarsoaldean hobetsi dituzuen 20 proposamenak

1. Lezotik Donibanera doazen bidegorrien sare konexioa hedatu eta espaloiak zabaldu.
2. Auzolan egitasmoak martxan jarri, bereziki gazteak inplikatu.
3. Hondakin organikoak kudeatzeko planta txiki bat eskualdean.
4. Eskualdeko 4 udalen konpromisoarekin nekazaritza lurren erreserba sortzea nekazari gazteentzat (landa lurren alokairua).
5. Gaixo psikikoaren lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak sustatuz, baratzak sustatuz.
6. Indarkeria matxista sufritu duten emakumeen arreta integralari zuzendutako proiektu pilotua. Informazio eta formazio saioak, aholkularitza juridikoa astean behin (Donostiako Emakumeen Etxean egiten den bezala) eta mugikorra eskualdean.
7. Arrazoi etnikoengatik diskriminazioari aurre egiteko sare baten sorrera.
8. Berdintasun teknikarien lantalde bat osatu herri guztietan jaiak parekide egiteko planak joratzeko.
9. Herrigintzako kohesioa bultzatzeko xedez, Euskal Herriko herri desberdinen arteko elkarbizitza sustatuko duten gai konkretuen inguruko programak egin (adibidez, Errigora ekimena).
10. Oiarzungo Gazte Izanak daukan Etxeak (jubilatua) irisgarritasun-legea betetzea.
11. Migrazioa: Euskal Herriko kanpo jaiotakoek euskara ikasteko erraztasun eta baliabideak ematea eta integrazioa lantzea.
12. Erreteriarako goiko auzoetara igotzeko igogailuen sarea osatu eta, horretarako, eskualdeko oztopo arkitektonikoak ekiditzeko azterketa egin.
13. Erreteriarako oroimen historikorako museoa. Bateragarria izan zitekeen Euskal Herriko Jantzi tradizionalaren Museoarekin.
14. Gizarte ekonomia bultzatzeko neurriak hartu:
 - a. Eskualdean ekoizten diren produktuak salgai jarri (baliabide endogenoak erabili, produktu ekologikoak izan eta euskara sustatu).
 - b. Coworking zentru bat sortu, esparru desberdinetako profesionalak espazioa eta baliabideak konpartitu ahal izateko eta koste baxuko lan egiteko toki bat izan dezaten.
 - c. Banku etikoa, trukea, herri txanpona.
15. Herritarrek erabiltzeko baratzak/lurak erosi, prestatu... norberak bere kontsumorako.
16. Energia berriztagarriak bultzatzeko plana: garraio publiko garbiak, adibidez.
17. Auto-kudeaketan oinarritutako garapenerako lankidetzaren proiektua Nikaraguan. Proiektuaren oinarriak honakoak dira: feminismoa, emakumeen lan-munduratzeko eta ahalduak, elikadura subiranotasuna, erabilera komunitarioarako espazioa, lekuko kultura eta ohiturak indartzea, belaunaldi arteko ezagutza-trukea eragitea, internazionalismoa...
18. San Pedroko PROISA eraikina birgaitu Oarsoaldeko behar soziokulturalak asetzeko. Donostiako ibilbide kulturalak Oarsoaldera gerturatu. Sormen eta berrikuntza laborategia sortu.
19. Motoraren ibilbidea zabaldu, ibilbide zirkularra eginez (Trintxerpe, San Joan, Lezo, Antxo...) eta ordutegi gehiagorekin. Ur bidezko bidea, erakargarria izan dadila turismoarentzako eta barrutiak komunikatu.
20. Motora MUGI sisteman sartu.

3 fasea (ekaina-abuztua)

Aldundiko teknikarien azterketa

4 fasea (iraila)

Eskualdeko batzarrek

Gauzatuko diren egitasmoak erabakiko dituzue eskualdeko batzarretan

DATA	ORDUA	LEKUA
Irailaren 23an	18:30ean	Pasai-Antxoko kultur etxean
Irailaren 30ean	18:30ean	Lezoko musika eskolan